

# Publizitatea agerian



## JUSTIFIKAZIOA

Publizitateak eragin nabarmena du ekonomian eta gizartean, teknologiaren eta bizimoduaren garapen azkarrak islatzen dituen negozioa baita. Publizitatearen arrakasta errealizazio sortzailearen mende dago informazioa ematera eta kontsumitzaileen portaeran eragitera bideratua.

## HELBURUAK

- Publizitateak gure ingurunean duen presentziari buruz hausnartzea.
- Publizitatea osatzen duten elementuak bereiztea eta horien esanahia eta funtzioa ezagutzea.
- Publizitatea aurkitzen dugun espazioak ezagutu.
- Erakusleiho bat banatzeko erabiltzen diren baliabideak ezagutzea.
- Euskarri finkoko publizitate motak identifikatzea.
- Publizitateak bete behar duen kode deontologikoa ezagutzea.
- Publizitatearen aurrean autobabeserako mekanismoak ezagutzea.
- Irizpide pertsonal eta arrazoituetan oinarritutako ibilbide-orria egitea familiaren kontsumoa jaisteko.

## EDUKIAK

- Zer da publizitatea?
- Non dago publizitatea?
- Publizitate motak.
- Publizitatearen osagaiak eta baliabideak.
- Publizitatea euskarri finkoan.
- Saltokiko publizitatea.
- Publizitatearen analisi kritikoa.

## ARIKETAK

### HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Infografia: Zenbat dakizu publizitateaz?
- Iragarkiak euskarri finkoan biltzea. Bete fitxa.

### GARAPEN FASEA (saioa)

- Publizitatea bilatzen dugu.
- Euskarri finkoko publizitatearen baliabideak.
- Erakusleihoak. Nola egituratzen diren.
- Publizitatearen autokontrola.
- Publizitatearen analisi kritikoa.

### APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Publizitatean genero-berdintasunari buruzko sentsibilizazio-kanpaina baterako kartel bat sortzea.

## OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

### DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.

### ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Izaten ikasteko konpetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.

## METODOLOGIA

- Elkarlana.
- Ikerketa bidezko ikaskuntza.
- Flipped classroom.

## ANTOLAKUNTZA

*IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Telefono mugikorra - Tableta	Oinezkoentzako gunea	saio 1 - 90 min

*\*Saioa kalean egiten da; beraz, oinetako erosoak behar dira.*

## EBALUAKETA

### IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta

### IKASLEAK

Ebaluazio inkesta